

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Gure kasuan zerbitzu automatizatu eta pertsonalizatu erabiliko dugu, webgunearen bitartez produktuen eskakizuna egingo delako automatikoki denda fisiko batera joan gabe eta bezeroen zalantzak argitzeko eta arreta handiagoa eskaintzeko. Email-en bidez edo gure sare sozialen bidez, zerbitzu pertsonalizatu eskainiko dugu, bezero bakoitzak zer behar duen jakiteko. Produktuak bueltatzeko, bezeroek 15 egun izango dituzte eta erosketa bakoitzeko, garraio-gastuak 3 eurokoak izango dira; erosketa 30 eurotik gorakoa bada, bidalketa doan izango da.

Bezeroak erakartzeko, kaleetako puntu batzuetan gure taldeko kide batzuk egongo dira kanpaina egiten, eta pasatzen den oinezko bakoitzari liburuxka bat emango diote, beharrezko informazio guztiarekin eta QR kode batekin. Kode hori eskaneatuz, aplikazioa irekiko da automatikoki. Kode horiek Gasteizko botelloi puntuetan ere egongo dira; horrela, gazteak erakarriko ditugu.



Esan dugun bezala, dohainezko hitzaldiak eskoletan ere egingo ditugunez, gazte horien jakin-mina pizten saiatuko gara; horrela, informazioa jasoko dute, eta beste pertsona batzuekin partekatuko dute: haien familiekin, lagunekin... etab.

Gazteengan arreta handiagoa jartzen saiatzen gara, helduagoek hezkuntza desberdina jaso dutelako, ez dietelako ingurumenari buruzko informazio askorik eman eta ez zaielako asko axola gai hori (noski, beraiei ere jakinarazten diegu); gazteak, aldiz, oraindik ikasten ari dira, eta ez



dute ideia oso argirik, eta horrekin lagundu nahi diegu, ezjakinak izan ez daitezen eta benetan gai izan daitezen horren inguruan zerbait egiteko, haiek baitira etorkizuna eta haien mende baitago gure planeta eta gure ingurunea.